

Urkide Ikastetxeko 3 ikaslek, Jonek, Alvarok eta Mikelek osatutako taldea gara eta gizarteari asko lagundu diezaiokeen proiektu baten ideia dugu.

Gaur egun, zoritxarrez, emakumeek indarkeria matxista pairatzen jarraitzen dute, eta gure munduko arazo handienetako bat dela uste dugu. Horregatik sortu dugu gailu bat, ahalik eta emakume gehienei arazo hori geldiarazten edo, gutxienez, arriskua murrizten laguntzeko.

"Savely" aurkezten dizuegu, emakume guztiak seguruago sentituko diren eskumuturrekoa. Eskumuturreko horrek App batera konektatutako lokalizatzaile bat du, eta baimentzen duzun jendeak beti aurkitu ahal izango zaitu harekin. Kasu larriagoetarako, piperbeltz esprai bat, alarma bat eta erasotzaileak uxatzeko osagarri gehiago ere baditu.